


ARNASGUNEAK

antzerki sorkuntzarako beka deialdia



arNasa
GARA



ARNASGUNEAK

antzerki sorkuntzarako beka deialdia

2021eko urria

OINARRIAK

1. XEDEA

Beka honen helburua da euskararen arnasmuneen garrantzia jendarteratzeko baliagarria izango den antzezlan baten sorkuntzarako oinarriak zehaztea, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak duela hiru urte abiarazitako ARNASA GARA kanpainaren baitan. Antzezlan horrek antzokietarako ez ezik formatu txikiko emanaldietara egokitzeko aukera ere izan beharko du.

Euskararen arnasmuneak euskararen ezagutza eta erabilera altuko udalerrriak dira, eta garrantzi handia dute euskararen biziberritzean, besteak beste beraien eredugarritasunagatik, hizkuntza belaunaldiz belaunaldi modu naturalean transmititzeagatik eta bertako herritarrek euskara zabaltzeko duten gaitasunagatik.

ARNASA GARA kanpainaren helburuak hauek dira:

- Arnasmuneetako herritarrek ahalduz, eta euskararen biziraupenean eta transmisioan duten garrantziaz sentsibilizatzea.
- Arnasmuneetatik kanpoko herritarrek arnasmuneak ezagutzea, eta betetzen duten paperaren garrantziaz jabetzea.

2. ZENBATEKOA

Bekaren zenbatekoa 23.000 euro izango da.

3. HIZKUNTZA

Antzezlan euskaraz sortu eta aurkeztu beharko da.

4. ESKATZAILEAK

Beka honetara edozein antzerki taldek aurkeztu ahal izango du, eta taldekideen kopurua ez da oinarri hautan mugatuko.

Beka honen eskatzaileek ez dute bekaren bidez sortuko den antzezlanagatik beste dirulaguntzarik eskatu ahal izango, antolatzaileen aurretiazko adostasunik ez bada.



5. AURKEZTEKO EPEA ETA BEKAREN IRAUPENA

Proposamenak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 15ean amaituko da, eta deialdira aurkeztutako lanak aztertu ostean epaimahaiak 2021eko abenduaren 3an jakinaraziko du bekaren irabazlea zein den.

Antzezlanaren oinarritzko gidoia martxoaren 15erako aurkeztu beharko zaio epaimahaiari, eta epaimahaiak egindako ekarpenak aintzat hartuta osatuko da antzezlanaren. Epaimahaiak bermatu beharko du azken emaitzak bekaren helburua betetzen duela; baita antzezlanaren kalitatea ere. Horiek bermatuz gero, 2022ko Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan estreinatuko da antzezlanaren.

ESKAERA EGITEKO ARGIBIDEAK

Informazio gehigarria, oinarriak, eskaera orria eta gainerakoak www.uema.eus, www.euskarabidea.eus eta www.euskadi.eus webguneetan eskuratu daitezke.

ESKAERA ORRIAK

Beka eskatu ahal izateko, deialdira aurkezteko eskaera orria bete beharko da, proiektuaren nondik norakoak azalduz. Eskaera orrian ondorengo datuak eskatuko zaizkio eskatzaileari:

1. Antzerki taldeari buruzko datuak: taldearen izena, webgunea...
2. Harremanetarako pertsonaren datuak: izen-abizenak, udalerrria, telefonoa, helbide elektronikoa.
3. Proiektuaren izena.
4. Proiektuan parte hartuko dutenen datu pertsonalak eta eginkizunak (artista, zuzendaria, ekoizlea...).
5. Sorkuntza proiektuaren laburpena.
6. Sorkuntzarako kronograma proposamena.
7. Eskaintzen den egonaldia buruzko datuak (behar teknikoak, datak, lekua...).
8. Sorkuntzaren behin-behineko aurrekontua.
9. Antzezlanaren antzokietara eta antzokiak ez diren beste areto eta lekuetara egokitzeko modua.
10. Antzerki taldearen katxea.
11. Komunikazio proposamena: komunikazio plana, euskarriak...

6. AURKEZTEKO EPEA ETA BEKAREN IRAUPENA

Dokumentazioa beranduenera 2021eko azaroaren 15erako helarazi beharko da, UEMAren Azpeitiko bulegora (UEMA. Enparantza Nagusia 11. Azoka Plaza, 6. bulegoa. 20730 Azpeitia), **ARNASGUNEAK**. *Antzerki sorkun-tzarako beka deialdia* goiburuarekin.

Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia digitalki ere aurkeztu daiteke, fisikoki aurkeztu beharrean. Kasu horretan, dokumentu guztiak PDF bihurtu, karpeta bakar batean bildu, eta hau hodeian eskuratzeko esteka posta elektronikoz bidali beharko da, honako helbidera: administrazioa@uema.eus

7. BEKADUNEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

BETEBEHARRAK

- Arnasguneen garrantzia jendarteratzeko baligarria izango den antzezlan baten gidoia aurkeztea epaimahaiari, 2022ko apirilaren amaierarako.
- Epaimahaiaren gomendioak aintzat hartuta, 2022ko azaroan Azpeitian izango diren Antzerki



Topaketetarako antzezlan prest izatea, eta topaketetan estreinatzea.

- Antzezlan taularatzeko beharrezkoak diren soinu eta argi ekipoen kostua beren gain hartzea, areto handietako teknikariarenak izan ezik.
- Antzezanerako beharrezkoa den atrezzo eta eszenografiaren gastuak beren gain hartzea.
- Antzezanaren komunikaziorako oinarrizko euskarriak sortu eta zabaltzea (argazkiak, diseinua, banaketa-dosierra, bideo teaserra...).
- Estreinaldiaren ondoren antolatzaileek zehaztutako lau udalerritan antzezlan aurkeztea (Nafarroan bat eta EAEn hiru). Lau saio horietan konpainiak ez du katxerik kobratuko.
- Antzezlan antzoki handietan zein txikietan eskaintzeko moldagarria izatea.

ESKUBIDEAK

• Antolatzaileek emanaldi horiez gain gutxienez beste 10 emanaldi lotuko dituzte, taldearen katxea aintzat hartuta. Hala ere, antzezlan arnagune diren herri txikietan eskaintzen bada, bekaren irabazleak ezingo du katxearen %50 baino gehiago kobratu. Emanaldi horien baldintzak antolatzaileek eta irabazleak adostuko dituzte, udalen tamainaren era baliabideen arabera.

• Bekaren irabazleek antzezlan sortzeko Azpeitiko Dinamo sormen gunea erabiltzeko eskubidea izango dute, egonaldia barne, antolatzaileekin adostutako datetan, eta antolatzaileek ordainduta. Sormen egonaldia bizpahiru astera arte luzatzeko aukera izango da, eta bertan espazioa, teknika, lotarako lekua eta otorduak barne sartuko dira.

8. AURREKONTUA

Oinarri hauen bidez izendatutako beka emateko UEMAk 2022rako onartu zuen aurrekontuaren 2.266.335,00 partidako ARNASA GARA BEKA atalean aurreikusitako dirua erabiliko da.

9. BEKAREN ORDAINKETA

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak egin ondoren:

- Kopuru osoaren %70a beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %30a antzezanaren gidioa aurkeztu eta gero.

10. EPAIMAHAI A ETA IRIZPIDEAK

Epaimahaia udalerrri euskaldunen garapenerako, hizkuntza normalizaziorako, garapen iraunkorreko eta kulturako adituek osatuko dute. Honako erakunde eta elkarteetako kide banak, zehazki: UEMA, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu, Dinamo sormen gunea eta Azpeitiko Udala.

Epaimahaiaren erabakia sariak banatzeko ekitaldian jakinaraziko da jendaurrean.

Hala ere, antolatzaileek aurretik izango dute erabakiaren berri, eta bekaren irabazleei ere jakinaraziko zaie, ekitaldiaren egunera arte isilpean gordetzeko konpromisoarekin.



Epaimahaiak honako irizpide hauek izango ditu kontuan sariak emateko:

- Gaiak ARNASA GARA kanpainaren helburuei ongi egokitzea.
- Proiektuari egiten dion ekarpena.
- Euskara zaindua eta egokia izatea.
- Eskaera orrian jasotzen diren beste hainbat xehetasun.
- Bekaren irabazleak oinarri hauetan zehaztutako betebeharrak ez betetzeak bekaren kopuru osoa itzularazteko beharra eragingo du automatikoki.

Epaimahaiak eman gabe utzi ditzake sariak, aurkeztutako laginek edo proiektuek gutxieneko kalitate-ezaugarriak betetzen ez dituztela iritziz gero.

11. ITZULKETAK ETA KALTE-ORDAINAK

Antzezlanean zehazten diren betebeharrak bete baino lehen eta UEMAK aurretiaz errekeritu gabe, beka-dunak bere borondatez saria itzultzen badu, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu. UEMAK berandutze interesak kalkulatuko ditu, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 38. artikuluan jasotakoari jarraituta.

12. LANEN JABETZA

Proiektuaren zein azken emaitzaren jabea egilea edo egileak izango dira. Hala ere, UEMArekin adostu beharko da antzezlanak lehen bi urteetan izango duen hedapena.

Lana zabaltzerakoan argi azaldu behar da beka honen laguntzarekin sortu dela, esaldi honen bidez: "Lan hau 2021ean UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak deitutako ARNASA GARA antzerki sorkuntzarako bekaren laguntzarekin egin da".

UEMAk berarentzat gordetzen du antzezlanaren irudiak edo testua osorik ala zatika zabaltzeko eskubidea, ohiko komunikazio euskarriak erabiliz, bere kabuz edo beste erakunderen batekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

13. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Beka eskaera aurkeztean, oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarriek diotena goitik behera onartzen duela aitortzen du eskatzaileak. Era berean, adierazten du eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatu ematea eta UEMArekin diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta baimena ematen du datu horiek gai honi lotutako jakinarazpenen kudeaketan bakarrik erabil daitezela. Hala ere, datu pertsonalak babesteko araudi orokorrean aurreikusitako kasuetan, beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei datuok helarazi edo laga ahal izango zaizkie.



**Beka deialdi honi buruzko
argibide gehiago behar izanez gero,
erabili honako bideak:**

UEMA

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

kontaktua:

komunikazioa@uema.eus
943 816699

sare bideak:

- Webgunea: uema.eus
- Twitter: [@UEMA_eus](https://twitter.com/UEMA_eus)
- Facebook: UEMAeuskaraz
- Instagram: [@uema_eus](https://www.instagram.com/uema_eus)
- Telegram: t.me/UEMAeus

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

